

VI. ERANSKINA

JARDUERA-PLANA EGITEKO ORIENTABIDEAK

Jarraian, jarduera-plana lantzeko orientabideak proposatzen dira. Jarduera-plana bat etorriko da bizikidetza-planarekin eta ikastetxeko AJA-BArekin, bai eta ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko 201/2008 Dekretuarekin ere.

Komenigarria da lan-talde bat osatzea eta/edo irakasle arduradun bat izendatzea informazioa koordinatzeko eta zentralizatzeko, jarduerak planifikatzeko, familiekin egingo diren bilerak prestatzeko eta deitzeko, kasuaren jarraipena egiteko eta gauzatzen diren ekintzak eta egoeraren bilakaera ebaluatzeko.

Protokoloaren fase guztietan bezala, konfidentzialtasuna eta datu guztien babesa bermatu behar dira.

Izendatutako irakasle hori arduratuko da, zuzendaritzarekin batera, B txostena betetzeaz.

Jarduera-planean, kontuan hartu behar dira, gutxienez, honako alderdi hauek:

a) Ustezko biktimarekin gauza daitezkeen jarduerak

- Ikaslearentzat hurbilekoa izango den heldu batek laguntza-, babesa- eta segurtasun-bermea emango dio biktimari .
- Laguntza eskatu behar duela adierazi. Laguntza eskatzeak ez diola kalterik egingo azalduko zaio, eta diskrezioa eta konfidentzialtasuna bermatuko da. Konfiantza sendotuko da, jasaten ari den jazarpenaren edukiekin lotutako edozein esperientzia konta dezakeela jakin dezan, eta argi adierazko zaio eduki horiek ez dutela inola ere justifikatzen jasaten ari den jazarpena, sexu-jazarpeneko edo jazarpen sexistako egoeretan askotan ikusten baita egoera hori.
- Indarkeria-egoeraren testuingurua aztertu, egoera hori zer unetan dagoen jakiteko:
 - Hasierako faseetan badago: berehalako lana biktimarekin, seguru senti dadin, emozio-oreka manten edo berreskura dezan, ez diezaion kulparik egotzi bere buruari, estres-maila murriztu dezan, ez dezan orokortu, eta bere autoestimuari ez diezaion kalterik eragin.
 - Ondorengo faseetan badago, erasoaren kulpak daukala pentsa dezake biktimak, edo jokabide-aldaketa izan. Horrela bada, ikasle erasotzailearengandik banantzeko aukera aztertu behar da, eta afekzio-babeseko sare bat eraiki horren inguruan. Hala eta guztiz ere, ongi balioetsi behar da biktima eta pertsona erasotzaileak edo ikusleak fisikoki banantzeko babes-neurri bat hartu behar den edo ez, ez dezan pentsarazi erasotzaileak bere helburua lortu duenik, horrek gehiago estigmatizatuko bailuke biktima.
- Autoestimua landu..
- Trebetasun sozialak landu: bere burua babesteko jokabideak eta asertibitatea; taldean lan egiteko trebetasunak, erasotzaile bihurtu gabe, biktima izateari uzteko trebetasunak lantzea, *role playing*eko (egiazko egoerak antzeztea) egoerak lantzea.
- Jazarpen sexistako egoeretan, estrategiak eman, ez ditzan onartu rol sexista jakin batzuk, ez eta sexuen arteko berdintasunarekin bateragarri ez den ohiturarik edo sinesmenik ere.
- Beharrezko irizten bada, kanpoko zerbitzuetara igorri (gizarte-zerbitzuak, osasunekoak edo biak), edo espezializatutako beste zerbitzu batzuetara (adib.: jazarpen sexista eta/edo sexu-jazarpena bada, udalerrietako berdintasun-sailak, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Emakunde, etab.). Edonola ere, adin txikiko ikasleak badira, haien gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi behar zaie.

b) Jokabide erasotzailea eragin duten ikasleekin gauza daitezkeen jarduerak

- Berehala esku hartzea pertsona jazarleekin, eta, inola ere, erasorik ez dela onartuko argi adieraztea.
- Banakako elkarrizketa antolatu:
 - Arazoa oso larria dela ulertarazteko.
 - Indarkeriazko jokabideak identifikatzeko.
 - Jarreraren zergatia aztertzeke.
 - Eragindako kaltearen gainean gogoeta egiteko eta hori onartzeko.
 - Enpatia eta arrazoibide moralala lantzeko.
 - Jarrera aldatzen hasteko eta kaltea konpontzeko.
 - Eragindako kalteak konpontzea eta konpentsatzea sustatzeko.
 - Adierazteko jarduera negatiboak edo antisozialak ez direla onartzen eta ez direla zigortu gabe geratzeko.
- Trebetasun sozialak lantzeko programak abiarazi.
- Nork bere erasorkotasuna kontrolatzeko programak sustatu.
- Zuzenketa-neurri hezigarriak aplikatu.
- Jazarpen sexistako edo sexualeko egoeretan, programa espezifikoa abiarazi, sinesmen, jokabide eta jarrera sexistak zuzentzeko; tradiziozko gizentasuna, sinesmen eta aurreiritzi sexistak, genero-estereotipoak eta abar ezbaian jartzera zuzendutako hezkuntza-programak izango dira.

Zuzenketa-neurriak aplikatzerakoan, kontuan hartuko da, ezinbestekoz, EAEko ikasleen eskubideei buruzko 201/2008 Dekretua. Horri dagokionez, kontuan hartu behar dira honako atal hauek:

Lehen Hezkuntza:

Ikasleen adinari egokitzeari buruzko 29. artikulua 2. eta 3. atalak:

29. artikulua.- Ikasleen adinari egokitzea.

2.– Lehen Hezkuntza Dekretu honetan ezarritako betebeharrak bat betetzen ez bada, irakasleek jokabide desegokia zuzendu beharko dute horretarako ezarri diren neurrietako bat berehala eta ahoz baliatuz. Neurri horiek aplikatu behar dira pertsonen edota objektuen balizko kalteak jaso ez dituzaten behin-behineko neurri ezarrien aurka egin gabe.

3. – Salbuespen gisa, ikaslearen jokabidea ikastetxeko bizikidetzarentzat larriki kaltegarria izan daitekeenean, eta jokabide hori ikaslearentzat edota hezkuntza komunitateko gainerako kideentzat arriskutsua bada, zuzendariak ohiko prozedura erabili eta Dekretu honetan jokabide horiek zuzentzeko ezarri diren neurriak aplikatu ahal izango ditu, betiere, Hezkuntzako Ikuskaritzari aurrez jakinarazpena igorritz.

Bigarren Hezkuntza:

Ohiz kanpoko prozedura aplikatu beharko da, ikasleen eskubideei eta betebeharrari buruzko 201/2008 Dekretuaren 68.b artikuluan azaltzen den eran.

Dekretuaren IV. kapitulu 4. atalean arautzen da prozedura hori. Beren aldetik, kapitulu bereko 1. atalean arautzen dira xedapen orokorrak.

Jokabideak zuzentzeko bide alternatiboak erabiltzeari dagokionez, kontuan hartu behar da Dekretuaren III. kapitulu jasotakoa, bereziki, 47. artikuluan.

c) Ikusleekin edo, hala badagokio, ikasgelako taldearekin gauza daitezkeen jarduerak

- Tutoretza-plana: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak horretarako lantzen eta sustatzen dituen programak eta materialak abiarazteko erabakia modu koordinatuan hartu.
- Berdinen arteko bizikidetzako indarkeriazko jokabideak esplizituki baztertzeko eta salatzeke aukera emango duten jarduerak gauzatu:
 - Argi zehaztu salatu beharreko jokabideak.
 - Egoera horietan ikusleek jokatzen duten rola argi zehaztu. Bidegabekeria salatzea elkartasun-jokabidea dela adieraztea, eta ez dela salatari izatearen berdina.

- Jokabide horiek ez onartzeko jarrerak landu, erantzun alternatiboak aztertuz, eztabaidatuz eta bilatuz.
 - Lagun-taldeek ematen duten segurtasun faltsuari eta banden itxurazko erakargarritasunari buruz eztabaidatu.
- Ikasleak inplikatu isolamendua eta biktimizazioa babesteko, prebenitzeko eta zuzentzeko esparru baten sorreran.
 - Berdinen arteko laguntzarako estrategiak landu.
 - Ikasle bitartekarien esku hartzea sustatu.
 - Ikasle guztiak taldean barneratu, eta trebetasun prosozialak landu lankidetzaren bidez
 - Ikasleei laguntza eskatzen irakatsi, bai eta salataritzat joak izateko edo eurak ere biktima bihurtzeko beldurra gainditzen ere.
 - Beldurrarazteko egoerak sala daitezkeela jakinarazi, eta horretarako, ikastetxean badaudela konfidentzialtasuna bermatzen duten bitartekoak (telefono laguna, iradokizunen postontzia, gatazkak ebazteko batzordea...).
 - Soziogramak edo ikastetxeak egoki irizten dituen beste tresna batzuk erabili, taldeko barne-harremanei buruzko informazioa biltzeko, gutxi gorabeherakoa bada ere.
 - Jazarpen sexistako egoeretan, lan espezifikoak egin sexuaren arabera aurreiritziak, estereotipoak eta rolak desagerrarazteko; emakumeekin eta gizonekin lotutako jokabidezko eredu soziokulturalen arabera eraikita egoten dira horiek. Helduek sexu-berdintasunaren esparruan jarraitu beharreko jarrera- eta jardueraren eredu egokiak azaldu eta sustatu behar dira.

Oharrak:

Kontu handiz burutuko da ikastaldearekin egin beharreko lana. Krisialdian zehar taldean lan egiten bada, arreta berezia jarri beharra dago planifikatutako jardueraren jazoetako egoerarekin zuzenean erlazionatu ez dadin (umiliagarria izan daiteke ikasle erasoarentzat eta, aldi berean, kaltea eragin duen pertsonaren karisma eta botere-sentimendua areagotu dezake). Ez da inoiz pertsonalizatu behar. Kontuan hartu behar da jarduerak modu desberdinetan interpreta daitezkeela, eta, beraz, jardueraren bakoitzaren ondorioak aurreikusten saiatu beharra dago. Emandako urrats bakoitza aztertu beharra dago.

Arreta berezia jarri behar da beti biktima ez nabarmentzeko taldearen aurrean eta arrisku-egoerak ez sortzeko. Batzuetan, ez da ikasgelan guztien aurrean landu behar jazarpen-egoera, biktimak berari buruz hitz egiten ari garela senti dezakeelako, eta lotsa edo umiliazioa bizi izan dezakeelako.

d) Jarduerak familiekin

- Familiei egin beharreko jakinarazpenak kontu handiz prestatu, eta ongi zehaztu bilera bakoitzeko helburuak. Elkarrizketetan parte hartuko duten pertsonen kopurua murriztu. Bilerak ez bikoiztu. Arazoa aintzakotzat hartzen dela ikusteak lasaitu egingo ditu familiak, eta konfiantza emango die.
- Familia bakoitzarekin bakarka lan egin. Bakarrik prozesuaren amaieran edo arrazoi sendoak direla medio, lan egin ahal izango da bat baino gehiagorekin batera.. Liskarrak saihestu.
- Gatazka-egoera desagerraraztea ez dela xede bakarra azpimarratu; aitzitik, ikasleek esperientzia horretatik honako hauek ikastea ere nahi da: jarrera-aldaketa, trebetasun sozialak...
- Familiei jarrera ulerkorra agertu. Ez jo erruduntzat. Aldaketak edo proposamenak leuntasunez eta errespetuz iradoki. Argi adierazi seme-alaben ongizatea eta garapen pertsonala, soziala eta morala direla helburu nagusiak.
- Bilera guztietan akta jaso, eta akta horretan adierazi bileraren xedea, parte-hartzaileak, ondorioak, proposamenak...
- Familiei beren seme-ari edo alabari buruzko informazioa eman, eta inoiz ez beste ikasle bati buruzkoa.
- Ikastetxeak eman dituen urratsen berri eman.
- Jazarpen sexista eta/edo sexu-jazarpena badago, dauden baliabide espezializatuen berri eman (udalerrietako berdintasun-sailak, gizarte-zerbitzuak, Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzarena, etab.).

e) Jarduerak irakasle-taldearekin

- Jarduera-irizpideak adostu eta bateratu.
- Tutorearen lana erraztu.
- Gertakariaren izaera eta neurria ebaluatu galdetegiaren bidez, eta esku hartzeko estrategia zehatzak diseinatu kasuaren arabera.

f) Irakasle-taldearen jarduerak

- Irakasleek hautematen duten eraso- edo jazarpen-egoera guztietan esku hartu behar dutela gogorarazi, bai eta erasoari berehalako laguntza eta babesa eman ere, ikastetxean zein ikastetxetik kanpo.
- Beren edo beste kideren baten egoerari buruz, ikasleek eman dezaketen informazioarekiko jarrera irekia agertu.,
- Zaintza espezifiko eta sistematikoa. Arreta berezia jarri behar da erasoak pairatzen ari daitezkeen ikasleen jarrera-aldaketetan (umore-aldaketak, uzkurtasuna, bakardadea, hezkuntza-errendimendua murriztea...).
- Bitartekoak sortu ikasleek tutoreei, irakasleei edo eskola-komunitateko beste kideei informazioa helaraz diezaieten: postontziak jartzea, laguntza-helbideen berri ematea, etab.
- Gatazken kudeaketan ikasleen inplikazioa sustatu (ikasle laguntzaileen edo bitartekarien programak antolatzea).
- Irakasleen prestakuntza sustatu jazarpen sexistako edo sexu-jazarpeneko egoeretan, hezkidetzan eta emakumeen kontrako indarkeriaren; eta bere esku jarri sexuagatiko bereizkeriako egoerak, jazarpen sexista eta eraso sexualak hauteman, eta horiek ikasgelan lantzeko estrategiak garatzeko materialak eta baliabideak

g), Bakarrik edo beste eraso mota batzuekin batera, ziberjazarpena gertatzen den kasuetan, beste jarduera batzuk ere gauza daitezke, esaterako, "Ikastetxeetan *ziberbullyingari* aurre egiteko jarduera-protokoloa"ren III. eta IV. kapituluetan jasotzen direnak.

Horrelakoetan, komenigarria da gai hori tutoretza-planean sartzea, ikasleek uler dezaten informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak modu desegokian erabiltzeak kalteak eta ondorioak eragin ditzakeela, eta ikasleei jakinaraztea jarduera horietako batzuk delitu direla (beste edonoren nortasuna ordeztea, mehatxatzea, etab.).

Egoeraren arabera, ikastetxeko zuzendaritzak sala dezake bere instalazioetan gertatu bada, edo polizia-salaketa bat jartzera bidera ditzake familiak *ziberbullyinga* ikasleen etxeetan edo beste leku batzuetan gauzatu bada.

Ziberbullyingari aurre egiteko aipatutako jarduera-protokolo horren berri ere eman diezaietke ikastetxeak familiei.

Jazarpen sexistako eta/edo sexu-jazarpeneko egoeretan, gainera, neurri espezifikoak sartu beharko lirakeke tutoretza-planean, hezkidetzaren, genero-berdintasunaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren esparruan.

h) Funtsezkoa da gauzatutako esku-hartzeen jarraipenerako eta ebaluaziorako irizpideak ezartzea, eta baita **prozesuaren arrakastarako adierazleak** ere, egoera behar bezala konpondu den erabakitzeko.

Hona hemen zenbait adibide:

- Prozesua amaitutzat joko da biktimaren ongizatea eta jokabide erasotzailea eragin duen pertsonaren jarrera-aldaketa bermatuko dituzten baldintzak sortzen direnean. Biktimaren ongizateari buruz, azpimarratu beharra dago eskola jazarpenak eragindako ondorio emozionalak ez direla erraz gainditzen, eta, askotan, ageriko "normaltasunaren" azpian estalirik gelditzen direla. Gure lana biktimarengan sortu ahal izan den balizko estigmazioaren desagertarazpen osoa lortzea izango da, eta autoestimua berreskurapena bermatzea ere, bere gertuko inguruko elkarbizitza positiboarekin batera.

Aurreko helburu horren lorpena adierazten duten ebaluazio-irizpideen eta adierazleen hainbat adibide:

- Ikasle biktimak eta horren familiak jazarpen egoera amaitu deneko adierazpena
- Erasoa eragin duen pertsonaren/en benetako barkamen eskaera ahoz edo idatziz, eta biktimaren onarpena.
- Inplikaturakoek borondatezko jarduerak edo lanak batera gauzatzea, betiere beren arteko harreman ona adierazgarria den kasuetan.
- Kasuaren jarraipenaz arduratuko den taldeak horretarako ezarritako epean zehar, mota horretako egoerak berriz ere gertatu ez direneko egiaztatpena.

Jarraipena ongi planifikatuko da. Horretarako, prozedurak, datak eta arduradunak zehaztuko dira.

Egoera birbideratua izan dela pentsatu arren, prebentziozko zaintzarako zentzuzko aldia ezartzea komeni da

i) Behin kasua amaitu denean, komenigarria litzateke **ikastetxeko AJA edo BA, Bizikidetzaplana, Tutore-ekintzarako plana, antolaketa edo beste mota bateko aldaketak... berrikustea**, ikastetxeko bizikidetzak hobetzeko, eta sor daitezkeen gatazkak prebenitzeko eta kudeatzeko, eskola jazarpenari lotutakoak bereziki..

Era berean, Bizikidetzak Behatokiari eman ahalko zaio kasuaren berri, eta horren bideraketa eta ateratako ondorioen berri ere, bera arduratzen baita ikastetxeko bizikidetzak ebaluatzeaz. Nolanahi ere, kontuan izango dira datu pertsonalak babesteari eta pribatutasuna errespetatzeari buruz indarrean dauden mugak.